

Eusko-Ikaskuntzaren Deia

Eusko-Ikaskuntzak, bere lehen-ibilaldian (1918-1936) bazuan aldizkari bat, berri-emaile. Han ematen zuan bere lanen eta asmoen aditzera, baita Euskal-herrian, han-hemen, agertzen ziran ikaslanen ezaguerare ere.

Eusko-Ikaskuntzak baditu bizpairu begirune ahortzi behar ez ditugunak. Ikaskuntza dalarik, ikerketa du bere lehen-maila edo esoina. Euskal-ikaslanetan dabilrelako, Euskalerriari eta euskal-azikerari eta ezikerari buruz azterketak sorreraztea, eraentzea eta egitea da bere lehenengo egikizuna. Lan horren bidez, ikasgaiak agertzen eta biltzen ahal ditugu. Gero ordea, gai horiekin jakiunda eraiki behar dugu. Ondoren berriz irakatsi idaztien, itzaldien eta ikas-tolen bidez.

Ikerlanak gure elkarteko taldeen gain dihoatz, baita gaien jakiundatzea ere. Gainerikoa elkartearen buruzagiak eraundu beharko dute, giroari, aldiai eta egokierari erantzunez.

«Eusko-Ikaskuntza» elkartea bai da, alde hontatik dagozkion lanak —gure jakintzen erloak nola dihoatzen arreta artzea, taldeak nola joka diran beren azterketetan begiratu eta guztiak egiten ari diran aurrapenezaz jabetzea bere erkideai eta gure ikaslanetara joera dutenei adierazi behar dizkie.

Gai hauetaz berri asko, laburki bederen, hiru ilabetez beingo aldizkari *Eusko-Ikaskuntzaren Deia*-n, ematen zituan lehen-ibilaldian. Orain ere hortan jarraitzea bidezko da noski. Horregatik doa berriro aldizkari hau. Honen bidez, gure erkideak jakiten ahal dute gure ikaslanak zertan diran eta elkartea bere artu-emanetan nola dabillen.

Barandiaran'go Joxemiel